



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Elgoibarko Udalean

VI. plangintzaldia (2018-2022)

Ildo nagusiak

Euskara Saila
2019ko maiatza



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Euskarak ere Elgoibarko Udalaren zerbitzu hizkuntza izaten jarraitzeko eta langileon lanerako hizkuntza normala izateko, *ORAIN ARTE EGINDAKO BIDEA SENDOTU NAHI DUGU* Euskararen Erabilera Normalizatze VI. Plangintzaldi honetan, 2018tik 2022ra artean.

Langileok euskararen ezaguera maila altua lortu dugu. Hartara, aurreko urteetako lanari

segida emateko, hemendik aurrerakoan, are gehiago, euskararen erabilera izango da erronka nagusia; berdintasunerantz joko da hizkuntzen erabileran, baina euskarari lehentasuna emanda eta euskarazko sortze lana areagotuta: *GEURE LANEAN, IDATZIAK EUSKARAZ SORTZEA SUSTATUKO DUGU*, beti itzulpen zerbitzura jo gabe.

Euskara, zerbitzu hizkuntza

• Herritarrekin:

Aurrez aurre zein telefonoz, *LEHEN HITZA EUSKARAZ* egingo dugu beti. Bermatu behar dugu euskarazko komunikazioa eskatzen duenari euskaraz erantzungo zaiola.

Idatziz, herritarrei zuzendu beharreko dokumentazioa ele bietan egongo da. Helburua da, ordea, Udalera *EUSKARA HUTSEAN SARTZEN DIREN IDATZIEI EUSKARAZ ERANTZUTEA*.

Gainera, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), bi hizkuntzetan dauden inprimakiez gain, *EUSKARA HUTSEKO INPRIMAKIAK ERE EGOTEA* eta herritarrei eskaintzea izango da helburua.

• Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak:

Euskaraz ere egotea da helburua, eta gaztelaniarekin batera erabiltzen direnean, euskarazkoa lehenik. Udal eraikinetan, euskara hutsean idatzi ahal izango dira: hitzek eta mezuek antzeko grafia dutenean; piktograma bidez lagunduta datozenean; eta oso erabilera hedatuko izendapenak direnean.

• Argitalpenak, publizitatea, albisteak eta jendaurreko ekitaldiak:

Euskararen presentzia eta erabilera bermatuko dugu. Bi hizkuntzak azaltzen direnean, euskarari lehentasuna emanda.

• Ingurune digitalean:

EDUKIAK EUSKARAZ ERE EGOTEA bermatuko da webgune eta sare sozialetan, defektuz euskarazko sarbidea dutela. Haur eta gazteei, euskara hutsean, betiere, inoren eskubideak urratzen ez badira.

Euskara, lan hizkuntza

• Barnean:

Komunikazioan eta lan tresnetan *EUSKARA ERE OHIKOTASUNEZ ERABILTZEA* da helburua.

Komunikazio administratiboak (zirkularrak, oharrak, eskaerak...) ahal den guztietan euskaraz izango dira.

Ahoz ere bai, izan norberaren sailean, izan sailen artean —bileretan, adibidez—, euskaraz egitea sustatuko da, entzuten den hizkuntza ere badelako Udalaren irudia.

Programa eta tresna informatikoak euskaraz lan egiteko prestaturik egongo dira, eta aurrerantzean jartzen diren ekipo berrietan euskarazko bertsioa jarriko da.

• Kanpora begira:

Idatziz, gainerako administrazioekin: Areagotu egin nahi dugu euskararen erabilera. Elgoibarko Udalak euskaraz edo ele bietan bidaliko dizkie idatziak EAEko gainerako administrazioei; dena den, hala eskatzen edo adosten denean, euskara hutsezko komunikazioak bidaliko dira, baita euskara hutsean funtzionatzen duten administrazioetara ere.

Ahoz, EUSKARA OFIZIALA DEN EREMUETAN, KOMUNIKAZIOA ERABAT EUSKARAZ izatea sustatuko da.

EAEko hornitzaileekiko harremanak ahal den guztietan euskaraz izatea sustatuko da. Besteak beste, aurrekontu eta fakturak euskaraz eskatuko dira, edo gutxienik ele bietan. Udalak inoren bidez eskaintako zerbitzuetan, jarraipena egingo da hizkuntza irizpideak nola betetzen diren.

Euskara Zerbitzuaren laguntza

Langileek euskaraz lan egiteko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko egiten duten ahalegina bultzatu nahi du Udalak, eta, Euskara Sailaren bitartez, laguntza eskaini:

• **Aholkularitza, zuzenketak, itzulpenak:** idatzi-ereduak eta inprimakiak ez ezik, baita aholkularitza eta zuzenketa edo itzulpen zerbitzua ere.

• **Trebatzeko saioak:** eguneroko lanak euskaraz egiteko zailtasunak dituzten langileek trebatzeko aukera izango dute, bakoitzak dituen behar jakinen arabera.

• **Euskara ikastaroak:** informazioa emango zaie euskara hobetu nahi duten langileei.

• **Ekipo eta aplikazioak:** baliabideak eskaini ekipo eta aplikazioak euskaraz erabiltzeko.

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako beste zenbait jarraibide

Euskara erabiltzeko planeko ildo nagusiekin batera, kontuan izatekoak dira Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Jarraibideetan jasotako beste hauek ere:

· Barnean:

Inprimakiak, ahal dela euskara hutsean; ezin denean, ele bietan, euskarari lehentasuna emanda.

Langile guztientzako **barne informazioa** euskaraz edo ele bietan egongo da; talde jakin bati zuzendua denean, ahal dela euskara hutsean.

Bilera deiak eta aktak ere euskara hutsean edo ele bietan egin daitezke. Berdin, batzorde informatzaileen bilera-dei eta irizpenak.

· Jendaurrean:

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan (megafoniaz, erantzungailuetan, igogailuetan...) lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz.

Jendaurreko **ekitaldietan**, ele bietan egingo da, baina euskarari lehentasuna emanda.

Emanaldi, hitzaldi eta abarretan, bi hizkuntzak erabiliko dira, baina kontuan hartuta hartzaileak zein diren (haur eta gazteei, euskaraz).


Langileen **prestakuntzarako**, sail bakoitzak neurriak hartuko ditu berak antolatutako ikastaroak, aukera dagoenean, euskaraz izateko.

Obretako seinaleek ele bietan egon beharko dute, euskarari lehentasuna emanda.

Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko:

Hizkuntza normalizatzailea, trebatzailea:

Jose Anjel Aldai

 943 74 43 66 / 405

 normalizazioa@elgoibar.eus

Itzultzailea, zuzentzailea:

Nerea Lodoso

 943 74 43 66 / 404

 itzulpenak@elgoibar.eus

Euskara teknikaria:

Kristina Zuatzubizkar

 943 74 43 66 / 403

 euskara@elgoibar.eus